AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3890

185/2011 DEKRETUA, uztailaren 26koa, Euskadiren Europar Batasunerako ordezkaria izendatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluko j) idatzi-zatian, 26. artikuluko 6. paragrafoan eta 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lehendakariaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko uztailaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Marta Marín Sánchez andrea Euskadiren Europar Batasunerako ordezkari izendatzea.

2. artikulua.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 26an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.